

BETETZEKO GARAI A HELDU DA

ELA, STEE-EILAS eta LAB sindikatuok jakinarazi nahi dizuegu pasa den ikasturtearen bukaeran egin zen salaketa kanpainan parte hartu zuten pertsona eta ikastetxe guztien elkarlanari ezker finkatu genuen helburua gertuago dagoela: ikastetxetako segurtasun baldintzen hobekuntza eta langileon osasunaren babesa Hezkuntza Saileko arduradun politikoen lehenetsuen zerrendaren azkeneko postuetan ez egotea.

Hau lortzeko beharrezkoak ziren bai jendearen parte-hartzea, bai esparru honetan eskumena duten erakunde ofizialen inplikazioa: Lan Ikuskaritza eta Osalanena. Bi kasuetan itxaropena ematen diguten emaitzak lortzen ari dira. Hurrengo lerroetan horiei buruzko informazioaren berri ematen dizuegu.



Lan Ikuskaritzak egindakoa

Bizkaiko Lan Ikuskaritzak, iritsi zitzaizkion lehendabiziko salaketak (21 ikastetxeri zegozkienak) aztertu eta gero, hezkuntza sailari errekerimendua egin zion 2006ko abenduaren 31 baino lehen ikastetxetako arriskuen ebaluaketa egiteko, salaketa egin zuten ikastetxetako bereziki. Emergentzi planen eguneratzea eta martxan jartzea eskatzen dio, dagozkien simulazioak eginez. Baita ere exijitzen dio langileek jasaten duten arriskuen inguruko prestakuntza jaso behar dutela.

Beste aldetik, langileei azterketa medikoak berehala eta hortik aurrera dagokion maiztasunez egitea eskatzen dio. Azkenik, exijitzen du ikastetxeek sorospen-gela eta haurdun dauden zein bular-emaile diren langileentzako atsedeen-lekua eduki behar dutela.

Hau guztia aurrera eramateko Prebentzio Zerbitzuaren langile kopurua igo behar da ezinbestean.

Arabako Lan Ikuskaritzak ikastetxez ikastetxe aztertuko du egoera, errekerimenduak bakoitzarentzat egingo dituelarik. Egindako lehendabizikoan 4 ARAU-HAUSTE LARRI egiaztatu ditu: arriskuen ebaluaketa ez egiteagatik, langileriarik azterketa medikurik ez egiteagatik, langileriarik pairatzen dituzten arriskuen inguruko prestakuntzarik ez emateagatik eta emergentzi plana ez eguneratzeagatik.

Gipuzkoan, Lan ikuskaritza Osalanen txostenen zain dago, horietan agertuko diren emaitzen arabera jokatzeko. Zentzu honetan, berri onak espero ditugu gutxi barru.

OSALANek egindakoa

Osalan salaketak egin dituzten ikastetxeak bisitatzen joan da eta jarraituko du hau egiten. Salaketek oinarria zutela ikusi zuenean, Hezkuntza Saileko arduradunekin eta kanpaina bultzatu genuen sindikatuokin kontaktuan jarri zen. Honen ondorioz, azaroaren 4an Osalaneko Zuzendaria, Zerbitzu eta Administrazio Sailburuordea eta sindikatu bultzatzaileen arteko bilera egin zen. Bilera honetan Hezkuntza Sailak salaketak jarri dituzten ikastetxeetan neurri zuzentzaileak hartzen hasiko dela adierazi zuen. Baita ere ELA, STEE-EILAS eta LABek egindako eskaerak aztertzekeo hitza eman zuen eta hurrengo Osasun eta Segurtasun Lurralde arteko Batzordean erantzun zehatzak emateko hitza hartu zuen. Batzordearen bilera hau egiteko deialdi formala jadanik egin dugu hiru sindikatuok.



LAB, ELA eta STEE-EILAS en eskaerak

1.- Arriskuen ebaluaketa. Gaur egun lanean ari diren 7 erdi mailako teknikari bakoitzak 8 ikastetxe aztertzen du ikasturte bakoitzeko, honela ikasturte batetan 56 ikastetxe aztertzen direlarik. Gauzak honela, ikastetxe guztiak aztertzeko 10 urte beharrezkoak izango ziren. Proposatzen duguna zera da: Prebentzio Zerbitzuak Berritzegune bakoitzeko gutxienez teknikari bat izatea, hau da, 18 langile 7 izan beharrean. Honela 144 ikastetxe aztertuko ziren ikasturte bakoitzean. Hau oraindik oso erritmo geldoa denez, 10 teknikari gehiago eskatzen ditugu ikasturte bakoitzean 224 ikastetxe ebaluatzea lortzeko.

2.- Neurri zuzentzaileen ezarpena. Ikastetxe batetan dauden arriskuak identifikatzearen helburua ez da folio pila bat betetzea hauek kaxoi batetan gordetzeko, baizik eta eskumena duten administrazioek detektaturiko arazoei berehalako erantzuna ematea. Halaber, orain arte aztertu diren ikastetxeetan errepikatzen diren arriskuen kontrako prebentzio kanpainak egin daitezke.

3.-Ikastetxeetako Segurtasun Kolaboratzaileak. Ikastetxearen tamaina eta konplexutasuna kontutan hartzen dituen eskola-orduen murrizketa eskatzen dugu langile hauentzako, Sailarentzat interesa duten beste erantzukizunak dituztenen baliokidea.

4.- Prebentzio Zerbitzua. Aipaturiko erdi mailako teknikariez gain, oraindik bete gabe dauden goi mailako teknikarien lanpostuak berehala betetzea eskatzen dugu, eta baita indarrean dagoen legeak markatzen dituen mediku eta ATS lanpostuak betetzea (7 medikuentzako lanpostuak eta 7 ATS lanpostuak; 4 Bizkaian, 2 Gipuzkoan eta 1 Araban).

5.- Osasunaren Zaintza. Sailaren langile bakoitzak jakin behar du zehatz-mehatz bera kaltetu ahal duten arriskuen araberako azterketa medikoa noiz egingo dioten eta data hori ezin da urrun egon.

6.- Emergentzi Planak. Ezin gaitzke Barne Sailaren erantzunaren zain luzaroan geratu. Barne Sailak ez badu emergentzi planen eguneraketa bere gain hartzen, simulazioak eta ondorengo txostenak egitea Hezkuntza Sailak berak hartu beharko du.

7.- Langileen prestakuntza beraiengan eragina duten lan arriskuekiko. Ez da nahikoa han-hemenka ikastaroak eskaintzea. Pertsona guztiek arrazoizkoa den denboraren buruan ikastetxean bertan eta haien lan-orduen barruan berariazko prestakuntza jasoko dutela bermatzen duen planifikazioa egin behar da.

8.- Langileriaren parte-hartzea. Segurtasun eta Osasun Batzordeek (lurraldekoak zein lurralde artekoak) erregularitasunez eta bizitasunez funtzionatu behar dute. Prebentzio delegatuek berariazko ordu-kreditua izan behar dute. Ikastetxe bakoitzean Segurtasun eta Osasun Batzordea eratu behar da, bertako kolektibo guztietako langileen ordezkariak hala nola ikastetxean lan egiten duten kontratatuen ordezkariak barne daudelarik.

9.- Ikastetxeek bete beharreko baldintza minimoak. Aldagelak, sorospen-gela eta haurdun dauden zein bular-emaille diren langileentzako atsedeen-lekua eduki behar dute.

10.- Prebentzio Kulturaren sustapena irakaskuntzan. Hezkuntza eta Lan Sailaren arteko erakundea sortu, CEIDAK ingurugiro gaietan duen antolamendu eta lan esperientzietan oinarrituz. Honen helburua irakaskuntzan zehar-lerro moduan prebentzio kultura sustatzeko ekintzak eta materialak sortzea izango zen.

informazio gehiago hiru sindikatuon web orrietan